



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Aldi baterako kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia

Lanpostua: Informazioaren Kudeaketako teknikaria

GALDERAK

Lehen ariketa
Denbora, gehienez: 60 min.

- Ez ireki esan arte.

1.	Herritarrei Laguntza Integrala emateko Planak ezartzen duenaren arabera, zein hiru agenteri zuzentzen zaie Udalaren kanal anitzeko arreta?
2	Herritarrei Laguntza Integrala emateko Planak bost dossier edo espediente tipologia bereizten ditu. Zein dira horiek?
3	Aipa itzazu lan-talde batek eduki beharreko bost ezaugarri.
4	“Adeitasunezko zerbitzuak”, herritarrei arreta eman eta haien beharrianak entzuteko bitartekoa den aldetik, prozedura guztiekin zerikusia duten zeharkako zerbitzuak barne hartzen ditu. Zein dira zeharkako zerbitzu horiek?
5	Nola deritza administrazioaren interakzio elektronikoak gorde eta berreskuratzeko sistemari, direla herritarrekiko interakzioak, direla kanpoko entitateekikoak (eragindakoak, interesdunak eta beste administrazio batzuk)?
6	Zein bi oinarritzko zerbitzuek ahalbidetzen dute informazio eskaerak ebaztea, herritarrek formulatzen dituzten terminoetan?
7	Zer da Dreamweaver CS3 bat?

8	Kanal anitzeko estrategia bat erabiltzeak herritarrei emandako arreta hobetzeko balio du. Horretaz gain, aipa itzazu estrategia horren beste hiru helburu osogarri.
9	Aipa itzazu herritarrentzako arreta osatzen duten lau jarduera mota.
10	Zein kontsulta eta eskaera mota jo behar dira lehen mailakotzat edo oinarrizko mailakotzat?
11	Aipa itzazu Web 2.0ko tresna erabilien arteko hiru.
12	Defini ezazu “thesaurus” terminoa.
13	Informazioa berreskuratzekeo prozesuan, zer da “isiltasun dokumentala? Eta “zarata dokumentala”?
14	Bilaketa estrategia batean, zein da lan egiteko oinarrizko prozedura?

15	Aipa itzazu, eta deskribatu, webean informazioa berreskuratzeko hiru metodo.
16	11/2007 Legearen arabera, zein dira herritarrek administrazio publikoarekin harremanak izateko balia ditzaketen izenpe elektronikoko hiru sistemak?
17	Zein da kazetaritzako albiste baten egitura? Zein zatik osatzen dute?
18	Datuak Babesteko Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera, badira "bereziki babestu" beharreko datu pertsonalak, zeinak eragindakoak berariaz eta idatziz baimena eman ezean ezin baitira tratatu. Zein dira datu horiek?
19	Erabilerraztasuna. Kontzeptua. Deskriba itzazu bost gomendio. gutxienez.
20	Aipa itzazu marketin elektronikoko bost tresna.